



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2009KO OTSAILAREN 4AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Jasone Bernaola Aurrekoetxea
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko otsailaren 4an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-

2008ko abenduaren 22an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2009ko urtarrilaren 19an izandako premiazko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin onartzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

- **Abenduaren 22ko 2008/118 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.A.B.E.ri Mendieta auzoko Bieskoa baserrian hormigoizko solua sortu eta komun bat egiteko tabikeak eraikitze baimena.
- **Abenduaren 24ko 2008/119 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2008ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.



Ajangizko Udala

- **Abenduaren 24ko 2008/120 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.M.B.G.ri 8773-GCL ibilgailuaren 2009 urtetik aurrerako udal ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena onartzea.
- **Abenduaren 31ko 2008/121 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu auzoko 77 Andoni Etxearen inguruan tabola bat eraikitze lanak berehala gelditu daitezen agindu eta legeztatze hilaibeteko epea eman.
- **Abenduaren 31ko 2008/122 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2008ko 4. Hiruhilaibeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.
- **Abenduaren 31ko 2008/123 ZENBAKIDUN ALKATETZA DEKRETUA.-** 6/2008 kreditu aldaketarako espedientearen hasiera.
- **Abenduaren 31ko 124/2008 ALKATETZAREN EBAZPENEA.-** Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko 6/2008 kreditu aldaketa onartzea.
- **Abenduaren 22ko 125/2008 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Landaguneak argiztatzeko lanak direla eta Electricidad Mintegia eta Construcciones Garatzenak aurkeztutako fakturen onarpena.
- **Abenduaren 31ko 2008/126 ZENBAKIDUN ALKATETZA DEKRETUA.-** Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko 7/2008 kreditu aldaketa onartzea.
- **Abenduaren 31ko 127/2008 ZENBAKIDUN ALKATETZA DEKRETUA.-** Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko 7/2008 kreditu aldaketa onartzea.
- **Urtarrilaren 9ko 2009/01 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.J.B.M.ri, Ajangizko Maloste auzoko 13an dagoen Ibinarriaga dorretzeko teilatua konpontzeko baimena ematea
- **Urtarrilaren 9ko 2009/02 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** R.O.M.ri, aurkeztutako proiektuaren arabera, Kanpantxu Auzoko Arizpe baserria berritzeko baimena ematea
- **Urtarrilaren 12ko 2009/03 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.L.U.G.ri Ajangizko Mendieta auzoko Izpizua-Uriarte baserria berritzeko lanetarako baimena ematea
- **Urtarrilaren 16ko 2009/04 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.M.B.J.eri Ajangizko Maloste kaleko Bella-Vista etxean horma berreraikitze lanetarako baimena ematea.



Ajangizko Udala

- **Urtarrilaren 27ko 2009/05 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Kultur Etxeko gizarte eta kultura dinamizatzaileko zerbitzu kontratua Naia Odriozola Goikolea andreari esleitzea, sei hilabeterako

3.- MAIER MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN I. FASEKO 4. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2008ko abuztuaren 19an ospatutako batzarrean, besteak beste, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanak (I. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 163.203,16 euroko kostuarekin.

2008ko urriaren 23an ospatutako osoko bilkuran, 82.930,07 euroko lanen 1. Ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A.k aurkeztutako A08-181 faktura onartu ziren.

2008ko azaroaren 27an ospatutako osoko bilkuran, 42.221,37 euroko lanen 2. Ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A.k aurkeztutako A08-212 faktura onartu ziren.

Osoko bilkura berean 41.384,97 euro gehiagoko kostua onartu zen, alde batetik neurketen igoeragatik eta bestetik obra unitate berriek eraginda.

2008ko abenduaren 22an ospatutako osoko bilkuran, 37.856,15 euroko lanen 3. ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako A08-246 faktura onartu ziren.

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate jaunak, lanen 4. ziurtagiria aurkeztu du 28.108,26 euroko kostuarekin. Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 28.108,26 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako 2008ko abenduaren 31ko A08-262 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko laugarren ziurtagiria onartzea, **28.108,26** euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako **28.108,26** euroko kopuru orokorra duen 2008ko abenduaren 31ko A08-262 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

4.- MENTZETA AUZORA DOAN LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN II. FASEKO 3. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2008ko abuztuaren 19an ospatutako batzarrean, besteak beste, Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen II. Faseko lanak CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 117.120,00 euroko kostuarekin.



Ajangizko Udala

2008ko urriaren 23an osapatutako osoko bilkuran, 29.821,89 euroko lanen 1. Ziurtagiria eta Construcciones Intrxausti S.A.k aurkeztutako A08-182 faktura onartu ziren.

2008ko azaroaren 27an osapatutako osoko bilkuran, 41.047,90 euroko lanen 2. Ziurtagiria eta Construcciones Intrxausti S.A.k aurkeztutako A08-213 faktura onartu ziren.

Lanen zuzendaria den Igor Madariaga ingeniariak, 56.778,00 euroko lanen 3. Ziurtagiria aurkeztu du, burututako lanen adierazle. Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 56.778,00 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako 2008ko azaroaren 30eko A08-255 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen II. faseko hirugarren ziurtagiria onartzea, 56.778,00 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 56.778,00 euroko kopuru orokorra duen 2008ko azaroaren 30eko A08-255 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

5.- AJANGIZKO UDALETXEKO IDAZKARITZA-ARTEKARITZA LANPOSTUA BETETZEKO OHIKO LEHIAKETAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Bizkaiko Foru Aldundiak 2009 urteko lanpostuak hornitzeko lehiaketa arrunterako deialdia egin behar duela kontutan hartuta.

Ajangizko Udaletxean, Toki Administrazioako nazio izaerako gaikuntzarako funtzionarioentzat gordeta dagoen Idazkaritza artekaritza lanpostua bete gabe dagoela kontutan hartuta.

Ekainaren 27ko 834/03 Erret Dekretuak aldatu duen uztailearen 29ko Erret Dekretuak arautzen duenaren arabera, toki korporazioek, lanpostuaren ezaugarriak eta eginkizunak direla eta, merezimendu berezi legez gehienez 7,5 puntu sartu ditzaketela kontutan hartuta.

Alkate Udalburuak egindako proposamena aintzat hartuta, Udal Osoko bilkurak aho batez onartzen du:

Lehenengo.- Ajangizko Idazkaritza artekaritza lanposturako honako baldintzak onartzea:

Oinarri bereziak:



Ajangizko Udala

- Deialdi honetako lanpostua: Idazkaritza artekaritza
- Azpieskala: Idazkari artekaritza
- Norakoaren Osagarri maila: efapeabeko 18. Maila
- Hizkuntza eskakizuna: 4
- Derrigorrezko data: 1995eko uztailak 30
- Gutxienezko puntuazioa: %25ekoa
- Elkarrizketa: epaimahaiak, merezimendu espezifikoak hobeto aztertu eta baloratzeko, elkarrizketa egitea erabaki ahal izango du.

Merezimendu espezifikoak:

1.- Kategoría bereko Toki Erakundeetan Idazkaritza artekaritza lanpostuan egindako zerbitzuengatik, behin behineko, aldarreko edo behin betiko izendapenaz, 0,5 puntu zerbitzuak egiten jarduniko urte bakoitzeko, 4 puntu gehienez.

2.- Zentru Ofizialetan Hirigintza buruzko gutxienez 370 orduko prestakuntza eta hobekuntza ikastaroa egiteagatik, 2 puntu.

3.- Zentru Ofizialetan aurrekontu eta Kontabilitate publikoari buruzko gutxienez 200 orduko prestakuntza ikastaroa egiteagatik, puntu bat eta SICAL aplikazioari buruzko gutxienez 30 orduko prestakuntza ikastaroa egiteagatik 0,5 puntu.

- Merezimendu espezifikoak benetakotzea:

1.- Dagokion Toki Administrazioak emandako ziurtagiria.

2.- Ikastaroetan joan dela adierazten duen ziurtagiriaren fotokopia egiaztatuta.

BIGARRENA.- Delako oinarriak eta merezimenduak aztertzeke, ondoko Epaimahaiaren osaketa onartzea:

- Lehendakaria: Ajangizko Udaleko Alkate Udalburua
- Mahaikideak:
 1. Euskal Autonomi Elkarrekin izendaturiko mahaikide bat.
 2. Bizkaiko Foru Aldundiak izendaturiko mahaikide bat.Idazkariari dagozkion lanak, aipaturiko mahaikidetak batek hartuko ditu.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri Bizkaiko Foru Aldundiari ematea.

6.- AJANGIZKO UDALA ETA SOLIDARIDAD INTERNACIONAL ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala

Alkate Udalburuak, EHNE sindikatuaren bitartez bideratutako dirulaguntza bati esker, Ajangizen ikastaro edo hitzaldi bi emateko aukera dagoela azaltzen du. EHNE sindikatuak landa eremuetako familia eta pertsona nagusien elkarte den Solidaridad Intergeneracionalen bitartez, Ajangizen Menpekotasunaren legeari buruzko hitzaldia eta Informatikan lehen sarbideari buruzko ikastaroa eskaintzeko aukera aurkeztu du. Ajangizko Udala bere aldetik, tokia eskaini eta herritarrei jakinerazpenak burutzeaz arduratuko litzateke.

Proposamen hau aurrera eramateko, Ajangizko Udala eta Solidaridad Intergeneracional-en arteko elkarlaguntza hitzarmena sinatzea proposatzen da, agiri honi erantsita doan dokumentua kontutan hartuta.

Hitzarmena botaziora aurkeztuta, zinegotzi guztiek aho batez erabaki hau hartzen dute:

Lehenengo.- Ajangizko Udala eta Pertsona nagusi eta familiartekoen Elkarte den Solidaridad Intergeneracional-en arteko elkarlaguntza hitzarmena onartzea.

Bigarren.- Alkate Udalburua hitzarmena sinatzeko ahalmentzea.

7.- 2009KO MARTXOAREN 1EAN OSPATUKO DIREN EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.-

Datorren 2009ko martxoaren 1eko Eusko Parlamentua osatzeko hauteskundeak direla eta, hauteskunde mahaia osatuko duten kideak hautatatu behar dira: Presidente eta bokal bi eta bakoitzaren bi ordezeko.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak arautzen duenaren arabera, Presidente eta Bokalak zozketaz hautatzen dira, idazten eta irakurten dakiten hirurogeita bost urtez beherako biztanleen artean. Presidenteak batxilergo edo bigarren mailako lanbide heziketa titulua izan beharko du, edo subsidiarioki Eskola-Graduatu titulua edo ordezekoa.

Zozketa eginda, honako emaitza jaso da:

Titularra:

- Presidente: (0006) Jesus Maria Alba Garcia jauna
- 1. Bokala: (0336) Nerea Toledo Gandarias andrea
- 2. Bokala: (0256) Marta Moreno Zameza andrea

Ordezkoak:

- Presidentearen 1. Ordezkoa: (0051) Luis Bastegieta Echeandia jauna
- Presidentearen 2. Ordezkoa: (0344) Juan Maria Uriarte Landeta jauna
- 1. Bokalaren 1. Ordezkoa: (0263) Jesus Oar Arteta Undabeitia jauna
- 1. Bokalaren 2. Ordezkoa: (0370) Lourdes Zurrón Prada andrea
- 2. Bokalaren 1. Ordezkoa: (0078) Juan Carlos Bonilla Delgado jauna
- 2. Bokalaren 2. Ordezkoa: (0316) Juan Carlos Plaza Zaldegui jauna



Ajangizko Udala

8.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkateak dinamizatzailerak hautatzeko prozeduraren berri ematen du. Aldi baterako lanpostura bi hautagai aurkeztu zirela aipatzen du eta epaimahaiak egindako balorazioaren arabera, 34 eta 32 puntu lortu dituzte. Horren arabera Naia Odriozola kontratatzea onartu da, sei hilabeterako, Kultur Etxerako lanpostua ateratzen den bitartean.
- Mendieta auzoko rotondari dagokionez, bihar otsailaren 5ean replanteoa egiteko geratu direla aipatzen du. Esan dutenaren arabera lanak datorren astean hasteko omen dira, eta horren aurretik beraiekin hitzegi nahi du Alkateak herriko langilerik hartuko duten jakiteko. Lanak Exbasa enpresak burutuko ditu, eta langileren bat kontratatzeko ahaleginak egingo dituztela esan badute ere, puntu hori konfirmatzeke dago.
- Joan zen astean izandako haize boladen ondorioz, Mentzeta aldean eta bai Mendieta ere lurjausiak egon direla aipatzen du Alkateak. Lur jausi horiek kentzeko Garatzenari agindu zaio, eta Patxi Sierrakin urtarrilaren 30ean izandako batzarrean, kostu horiek imprevistos dekretutik aurkezteko adierazi zuen.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatzia direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA